

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
IBIAK ETA ERREKAK ANTOLATZEKO  
LURRALDEAREN ARLOKO PLANAREN  
ALDAKETA  
(ISURIALDE KANTAUARIARRA ETA MEDITERRANEOA)

MEMORIA

BEHIN BETIKO ONARPENA

2013 AZAROA

---

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
IBAIK ETA ERREKAK ANTOLATZEKO  
LURRALDEAREN ARLOKO PLANAREN  
ALDAKETA  
(ISURIALDE KANTAUARIARRA ETA MEDITERRANEOA)

MEMORIA

AURKIBIDEA

1.	<u>SARRERA</u> .....	1
2.	<u>AURREKARIAK</u> .....	3
3.	<u>LEGE ESPARRUA</u> .....	5
4.	<u>ALDAKETAREN HELBURUA</u> .....	7
5.	<u>ALDAKETAREN ANTOLAKETA IRIZPIDEAK</u> .....	7
6.	<u>ALDAKETAREN EDUKI DOKUMENTALA</u> .....	9
7.	<u>ALDAKETAREN ESPARRUA</u> .....	9
8.	<u>ALDAKETAREN JUSTIFIKAZIOA</u> .....	10

---

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
IBAIK ETA ERREKAK ANTOLATZEKO  
LURRALDEAREN ARLOKO PLANAREN  
ALDAKETA  
(ISURIALDE KANTAUARIARRA ETA MEDITERRANEOA)**

**MEMORIA**

## **1. SARRERA**

Euskal Autonomia Erkidegoko ibai ertzak eta erreka ertzak (isurialde kantauriarra eta mediterraneoak) antolatzeke lurralde plan sektorialak, 1998an eta 1999an onartu ziren; eta horrela, 1997an onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolaketako Arteztaruetan jasotako xedapen nagusietako bat bete zen. Onespen dekretu horietan adierazten denez, ibai ertzen eta erreka ertzen lurralde antolaketa egokia egitea da gure herriko antolakunde fisikoaren arronkarik nagusienetako bat. Gure ibaiek nolabaiteko maiztasunez eragiten dituzten uholdeekin lotutako gertakari tristeez, gaia berariaz eta sakon aztertzea eskatzen dute. Gure haranen eraketa geografikoak, eta haran horien sakontasunak eta lurzoru eskasiak, dauden ibarretako azalera urriak hirigintzan baliatzeko joera ekarri dute; eta horretarako, askotan, gure ibaiek ura husteko duten gaitasunak eragiten dituen premiekiko begirune gutxi erakusten duten irizpideak erabili dira ibai ertzak antolatzerakoan.

Hain zuzen ere, uholdeak dira, Euskal Autonomia Erkidegoak gaur egun bizi duen natur arriskurik handiena. Gertakari horiek hildako ugari eta kalte material handiak eragin dituzte historian zehar. Azkeneko gertakari larrienak, 1983ko abuztukoak, 1988ko uztailukoak eta 2011ko azarokoak izan dira.

EAEko isurialde kantauriarrak egoitza erabilerako eta industri erabilerako eremu asko eta azpiegitura ugari dauzka uholde arriskuan; eta hori, erreka, ibai, estuario eta kostalde ondoko eremuak biziki okupatu direlako gertatzen da. Horrekin alderatuta, isurialde mediterraneoak eragin gutxiago jasaten du, nahiz eta uholde arriskutik libre ez dagoen.

Oraindik orain, arrisku handia izan lezaketen 100 eremu mugatu dira Euskal Autonomia Erkidegoan; beraz, badugu gure esku-hartzearen helburu izango diren eremuei buruzko informazioirik. Garaia da, bada, eremu bakoitzean zer egin behar den, nor egin behar duen, eta noiz egin behar den zehazteko.

Jakina, ez gara hutsetik abiatuko. 1983az geroztik, eta lehenagotik ere bai, arriskuan dauden eremu hiritartuak eta eraikiak babesteko jarduerak burutu izan dira eta burutzen dira, eta aurrerantzean ere burutuko dira.

Berrikuntza zera da, orain denboran planifikatu eta programatu ditzakegula, arrisku aipagarria izan lezaketen eremuetan arriskua minimizatzeko –gutziz ezabatzea ezinezkoa baita– burutu beharreko jarduerak. Eta, era berean, lehenetsunak ezartzeko moduan gaude. Horretarako, lehen-lehenik, garbi eduki behar dugu inplikaturako administrazioei zein erantzukizun dagokien, edo dagokigun; udalei eta uren administrazioari, batez ere.

Gaur egun udalei dagokie babes obrak gauzatzeko behar diren lursailak eskuratzeko ardua, eta Eusko Jaurlaritzari –Uraren Euskal Agentziari/URARI– aipaturako obra horiek proiektatzea eta gauzatzea: beraz, alde aurretik, gauzatu beharreko proiektuari buruzko adostasuna lortu behar da, nahitaez, bi administrazioen artean.

Horixe da gaur egun gertatzen ari dena eta, gure ustez, aurrerantzean ere egin beharko dena.

Hori bai, ez da ahaztu behar, zenbaitetan egoitza erabilerako edo jarduera ekonomikoetara bideratutako eraikin batzuk eraitsi behar izaten direla; eta horrek sekulako eragozpenak ekar diezazkiekeela udalei, beren eginkizunak betetzeko. Horrelakoetan, badirudi foru aldundietara jo beharko litzatekeela laguntza eske; bestalde, aldundiek lehen ere sarritan eman izan dute laguntza hori.

Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalek garbi badute zeintzuk diren beren erantzukizunak, eta erantzukizun horiek bere gain hartzen badituzte, gure herriko eremu ugari bizi dituzten uholde arriskuak ahalik eta gehien murrizteko burutu beharreko jardueren planifikazio eta programazioa zentzuzko epean adostu daiteke.

Xede horri begira, erakundeen arteko akordioak bultzatu behar dira eta, horrela, inplikaturako administrazio guztien partaidetzarekin, gaur egun uholdeak jasateko arriskuan dauden eremuetako segurtasun baldintzak hobetzea ahalbidetuko da.

Erakundeen arteko jarduera horietako bat, hain zuzen ere, Autonomia Erkidegoko ibai ertzak eta erreka ertzak antolatzeke Lurralde Plan Sektorialen Aldaketa hau onartzea da; hartara, ibai bazterrak erregulatzen dituen araudia

eguneratu eta hobetu ahal izango baita, orain urak hartzeko arriskuan dauden duten hiri inguruneetan batik bat.

## 2. AURREKARIAK

Gaur egun indarrean dauden Euskal Autonomia Erkidegoko ibai ertzak eta erreka ertzak (isurialde kantauriarra eta mediterraneo) antolatzekeo lurralde plan sektorialak, 1998ko abenduaren 22ko 415/1998 Dekretu bidez eta 1998ko abenduaren 28ko 455/1999 Dekretuaren bidez onartu ziren behin betiko, hurrenez hurren. Eta prozedura horietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolaketak, Ingurune Fisikoaren Antolaketa kapituluan ezarritako agindua betez eta irizpide orokorrak xehatuz egin zen.

LPSak, onartu ziren une beretik aurrera, antolaketako agiri baliotsuak izan dira, eta ibai esparruen lurralde erregulazioa tratamendu integratu eta haztatuaren bitartez egitea ahalbidetu dute, betiere ingurumen balioen, ur arazoaren eta hirigintzako gaitasunaren multzo aldakorra eta sektoreartekoa aintzat hartuta.

Uholdeak prebenitzeari buruzko berariazko esparruan, Lurralde Plan Sektorialak, hasiera batean, Kantauriko Plan Hidrologikoa III-tik eta Uholdeak Prebenitzeko Plan Integraleko (UPPI) planimetriak ondorioztatutako araudia izan zuen oinarri.

1998az geroztik, Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak –eta gaur egun uraren Euskal Agentziak– uholdeei buruzko azterketa hidrauliko berriak egiten dituzte modu progresibo eta konstantean, Uholde-arriskuaren kartografia eguneratuak eginda. Era berean, bere garaian, uholdeei buruzko araudi espezifikoko berria egin zen, “Lurzoruaren erabilera irizpideak, erakusten duen uholde arriskuaren arabera”, eta araudi hori aplikatu izan da, ibai ibilguak dituzten lurralde esparruetan hirigintza tramitatzeko prozesu berrietan.

1998tik hasi eta gaurdaino, halaber, arau esparruak ere bilakaera nabarmena izan du; izan ere, ingurumen, ur eta lurralde arloko legeria berritzaile inportanteak onartu dira, bai Erkidego mailan, eta baita estatuan eta Europan ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko ibai esparruen lurralde antolaketa orokorra hobetzeko eta eguneratzeko egokiera, esparru horietako ingurumen, ur eta hirigintza arloko erregulazioa gertatu diren lege aldaketetara egokitu beharra, eta erkidego mailako arau-berrikuntza berrienak ofizialki bermatzeko

komenigarritasuna aintzat hartuta, 2004. urtean ikusi zen Autonomia Erkidegoko ibaiak eta errekek (isurialde kantauriarra eta mediterraneo) antolatzeke Lurralde Plan Sektoriala Aldatzeko prozesu bat bultzatu behar zela.

Eusko Jaurlaritzak, hortaz, 2004-2007 denboraldian, Euskal Autonomia Erkidegoko ibaiak eta errekek antolatzeke Lurralde Plan Sektorialen Aldaketa tramitatzeko prozesuari ekin zion, helburu bikoitzarekin: batetik, plan horiek eguneratzea, legegintzan sortutako hainbat berrikuntzari jarraituz (Uraren Esparru Arteztarua 2000/60 EE, Uren Legea 1/2001 Errege Dekretua, 2000 Natura Sarea 43/2003 Legea, Ingurumen Tramitazioa 183/2003 Dekretua eta 9/2006 Legea, Uren legea 1/2006 Legea, eta abar); eta bestetik, lurralde plan sektorial horiei, Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak sustatutako uholdeen prebentziarako arau irizpide berriak eranstea, betiere 1998tik aurrera sortutako azterketa hidraulikoen belaunaldi berrian oinarrituta.

Eraketa-garaia asko luzatu zen; izan ere, agerian geratu baitziren postulaturik berritzaileen -ibai ibilguak natur baldintzak progresiboki berreskuratzearen aldekoak- eta jarrerarik posibillistenen -ibilguen natur baldintzak babestearekin batera, urak har ditzakeen eremuetan kokatutako hiriguneetan uholdeak prebenitzeko neurriak hartzearen aldekoak- arteko zentzuzko kontraesan dialektikoak. Bada, garai horren ondoren, Aldaketaren dokumentua eratu zen; eta honek, bidezko administrazio tramitazioaren prozesua bete ondoren, Eusko Jaurlaritzaren hasierako onespina jaso zuen 2007ko abenduaren 10ean, Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Sailak emandako Aginduaren indarrez.

Aldaketaren dokumentu hori jendaurrean ikusgai egon zen bitartean (2008ko martxoa-ekaina) guztira 91 alegazio jaso ziren. Horietan azaldutako ondorio nagusia izan zen, dokumentuari erantzun zabala eta arrazoitua ematen ziola EAEko udalerrri handien -guztiak ere ibai ondoan kokatuak- gehiengo esanguratsu batek. Batez ere, uholdeen prebentziari buruz Aldaketan planteatutako araudiaren egokitasuna jartzen zuten zalantzan, eta prebentzio neurriak aurreikusteari nahiz arriskuen murrizketari garrantzi handiagoa ematea erreklamatzeko zuten. Horretarako, uholdeek hartzen dituzten zabaldietan hirigintzarako okupatutako zonak espazialki libre uzteko estrategia maximalista hipotetikoaren gaitetik, gure hiriguneetako asko urak har ditzakeen eremu gisa izendatzea planteatzen zuten.

Hori horrela, hasierako onespina jasotako dokumentuaren testuari erantzuna ematearen ondorioz, 2008. urtearen erdi aldera moteldu egin zen EAEko ibaiak eta errekek antolatzeke Lurralde Plan Sektoriala Aldatzeko prozesua.

2007az geroztik, gainera, uholde arriskuak era eraginkorragoan prebenitzeko premiari buruz geroz eta sentsibilizazio handiagoa dagoenez, legegintzan aldaketa berriak izan dira (2007/60/EE Europako Arteztaraua, uholde arriskuak ebaluatu eta kudeatzekoa; 9/2008 Errege Dekretua, uren erregelamendu publikoko domeinua aldatzen duena; 903/2010 Errege Dekretua, uholde arriskuak ebaluatu eta kudeatzekoa; Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren proposamena, BOE 2011).

Ikuspegi horretatik begiratuta, Eusko Jaurlaritzak erabaki du Euskal Autonomia Erkidegoko ibaiak eta errekek antolatzeke Lurralde Plan Sektorialaren Aldaketari bultzada berri bat ematea; eta horretarako, legegintzan eman diren azken berrikuntzen berriazko edukiak eransteaz gain, Uraren Euskal Agentziaren eta Ur Konfederazioen adostasunez eratutako uholdeen prebentzioari buruzko azken arauak eranstea; izan ere, 2008an, aurreko Aldaketari alegazioak jartzeko garaian, udalek emandako argudio teknikoaren zati handi bat biltzen baitute.

Orain, hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoko ibaiak eta errekek (isurialde kantauriarra eta mediterraneo) antolatzeke Lurralde Plan Sektorialaren 1. Aldaketa tramitatzeari ekin zaio berriro, Memoriaren eta Araudiaren testua eraberrituta, eta IEBE azterketa berori moldatuta, berriro ere hasierako onespenerako tramitazioa betetzeko eta, ondorioz, berriro ere jendaurrean ikusgai jartzeko.

### **3. LEGE ESPARRUA**

EAEko ibai ertzak eta erreka ertzak antolatzeke Lurralde Plan Sektorialak –bat isurialde kantauriarerako eta bestea isurialde mediterraneorako–, plan horien eskumeneko esparruetan eragiten duen legeriak berrikuntza oso inportanteak izan ditu; izan ere, plan horien araudiak sektore asko biltzen baititu eta lege asko eman dira, bai udal eta erkidego mailan, eta bai estatuko eta Europako administrazioetan.

Kronologikoki, besteak beste, legerian izan diren berrikuntza hauek azpimarra daitezke:

- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko lege orokorra.
- Uraren Esparru Arteztaraua, 2000/30/EE.

- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Lur Legearen testu bategina onartzen duena.
- Europako Natura 2000 Sare Ekologikoa, 43/2003 Legea.
- 183/2003 Errege Dekretua, uztailaren 22koa, ingurumen eraginaren baterako ebaluaketa egiteko prozedura arautzen duena.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko urena.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.
- 9/2006 Legea, apirilaren 28koa, hainbat plan eta programak ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzkoa.
- 2007/60/EE Europako Arteztaraua, uholde arriskuak ebaluatu eta kudeatzekoa.
- 2/2008 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa, Lur Legearen testu bategina onartzen duena.
- 9/2008 Errege Dekretua, urtarrilaren 11koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregelamendua onartzen duena.
- 903/2010 Errege Dekretua, uztailaren 9koa, uholde arriskuak ebaluatu eta kudeatzekoa.

Gainera, Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak, berariazko araudi bat eratu zuen bere garaian, "Lurzoruaren erabilerrako irizpideak, erakusten duen uholde arriskuaren arabera" izenekoa; eta, EAEko ibai ertzak eta erreka ertzak antolatzekeo lurralde plan sektorialekin batera, araudi horixe aplikatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolaketako Batzordean.

Aldi berean, Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak –gaur egun Uraren Euskal Agentziak– azterketa hidraulikoak eguneratzen eta hobetzen ari da modu progresibo eta konstantean, 10, 100 eta 500 urteko itzulera-epea duten uholde-orbanei buruzko mapak bezalaxe.

Azkenik, EAEko ibaiak eta errekek antolatzekeo Lurralde Plan Sektorialaren Aldaketa dokumentu honetako araudia eratzeko, indarrean dagoen araudi osoaz aparte aintzat hartu da, halaber, Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren Proposamenean (BOE 106, 2011-5-4koa) jasotako "Uholdeen aurrean babestea" araudiaren azkeneko berrikuspena. Gaur egun tramitazio bidean dagoen araudi horrek, Uraren Euskal Agentziaren (URA) eta Kantauriko Ur



Konfederazioaren artean adostutako edukiak ditu.

#### **4. ALDAKETAREN HELBURUA**

Euskal Autonomia Erkidegoko ibaiak eta errekek (isurialde kantauriarra eta mediterraneo) Antolatze Lurralde Plan Sektorialaren Aldaketa honen helburua da araudian aldaketa zehatz batzuk egitea eta orain arte indarrean egon diren dokumentuetan bidezko legeria-eguneratzeak egitea.

Eta, bitartekoen ekonomiari begira, aurreko bi lurralde plan sektorialak – bat isurialde kantauriarreko eta bestea isurialde mediterraneorako–, dokumentu komun eta bakarrean elkartu dira.

Era berean, izena ere erraztu egin da, ertzei buruzko aipamena ezabatuta.

LPSaren Aldaketan egin beharreko beste araudi-aldaketa zehatz bat, E kapitulari dagokio, "Berariazko Araudiaren E kapituluaren idazkera berria, osagai hidraulikoaren arabera". Kapitulu honetan, uholdeen prebentzioari buruzko araudia berriro definitu da; izan ere, EAEko arroen plan hidrologiko berrien tramitazio lanekin bat etorritik, aipatutako araudi hori uholdeen arriskua prebenitzeari buruz gaur egun indarrean dagoen lege esparruari egokituko baitzaio.

LPSaren Aldaketan egin beharreko beste araudi-aldaketa zehatz bat, F kapitulari dagokio. Hemen, arro-buruetako ibilguetan planteatzen litezkeen alterazioen tratamendua sistematizatu egingo da.

#### **5. ALDAKETAREN ANTOLAKETA IRIZPIDEAK**

LPSaren Aldaketa hau egitean jarraitu den lurralde antolaketako irizpide nagusia, uholdeen aurrean babesteari buruzko araudia hobetu beharra izan da. Horretarako, urak har ditzakeen ibai esparruetako lurralde antolaketaren ildoan bereizi egin dira, erregulazioaren eszenatoki desberdinen arabera: landa esparruak eta hiri esparruak, lehentasunezko fluxu-eremua eta urak har ditzakeen gainerako eremuak.

LPSaren Aldaketaren testu berrira eraman diren erregulazio-jarraibideak, honako dekretu hauen azkeneko xedapenetara egokitu dira: 9/2008 Dekretua, Uren Jabari Publikoaren Erregelamendua aldatzen duena; eta 903/2010 Dekretua, uholde arriskuak ebaluatu eta kudeatzeko. Jarraibide horiek, halaber, tramitazio bidean dagoen eta Uraren Euskal Agentziak eta Kantauriko

Ur Konfederazioak adostutako Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren testu berriari erantsi zaizkio.

LPSaren Aldaketaren lurralde antolaketaren irizpide orokorrak –osagai hidrologiko eta hidraulikoaren arabera– hortaz, helburu bikoitza du: batetik, urak har ditzakeen eremuetan, batez ere hiriguneetako eremuetan, uholde arriskuen aurrean babes neurriak hartzea; eta bestetik, lurzoruaren erabilerak erregulatzea ibai bazterretan eta ur ibilguen inguruan urak har ditzakeen eremu guztietan.

Bi helburu horiek modu haztatuan eta iraunkorrean tratatzeko, ibai-zatietako bi egoera bereizi dira: landa zonak eta zona hiritartuak.

Landa zonetan zentzuzkoa da ibai ibilguak eta urak har ditzakeen zabaldiak beren osotasunean zaintzeko oinarrizko estrategiak erabiltzea, betiere kasuan kasuko lurralde plan sektorialak behar bezala arrazoituta eta bermatuta agindu ditzakeen aparteko eragiketak salbuetsita.

Horrela bada, landa eremuetako ibai ibilguetan, lurralde antolaketako estrategia nagusia, ibilgu horiek naturaren eta ekologiaren arloan zaintzea izango da; eta ondorioz, urak har ditzakeen ibai bazterrak morfologikoki zaintzea, betiere lehentasunezko fluxu zona libre uzteari lehentasuna emanaz eta, urak har ditzakeen gainerako ibai bazterretan dauden hirigintza ezarpen bakanak babesten saiatuz, halakorik denean. Dena den, LPS baten bitartez tramita daitezkeen aparteko kasuetan izan ezik, oro har ibai ibilguetan eta urak har ditzakeen zabaldietan ez da okupazio berririk egingo, ezta hirigintza baldintzak aldatzeko ere.

Hiri esparruetan, aldiz, gaur egungo hiriguneetan dauden uholde arriskuen aurrean, horiek babestera bideratutako estrategiei emango zaie lehentasuna. Horretarako, lehentasunezko fluxu-eremua libre utziko da pixkaka-pixkaka, dauden oztopoak gutxituz edo ezabatuz, drainatze baldintzak hobetuz, babes obrak eraikiz eta, bidezko denean, puntu berezi batzuetan ibilguak estutzea dakarten eraikuntzak ezabatuz.

Ibai esparru hiritarren erregulazio hidraulikoan, hortaz, bereizi egin beharko dira, batetik, lehentasunezko fluxu-eremua, –batez ere estrategia babesgarri eta murriztailea hartuko duena–, eta bestetik, urak har ditzakeen gainerako eremuak. Azken hauetan ez dira bazterretako, besterik gabe, baldintza jakin batzuetan burutu daitezkeen eraikuntza esku-hartzeak.

Jakina, erregulazio estrategia horiek osatzeko, ingurumen baldintzak

hobetzeko politikak jarraitu beharko dira ibai ibilguetan, hauen bazterretan eta urak har ditzakeen zabaldietan, baldin eta politika horiek, uholde arriskua gutxitzeko hartu behar diren neurriekin bateragarriak badira behintzat.

LPSaren Aldaketa honen lurralde antolaketako erregulazio hidrauliko eta hidrologikoaren oinarria, ibai ibilguk uholdeak eragiteko izan lezaketen arriskuaren inguruko azterketak egitea edo eguneratzea da. Azterketa horietan, ibilgu publikoen, hauen zorpen eta kontrol guneen, eta urak har ditzakeen eremuen mugaketaren kartografia egitea aurreikusi beharko da; eta, funtsezko xedapen gisa, lehentasunezko fluxu-eremuaren definizioa (9/2008 ED) jasoko da bertan.

## 6. ALDAKETAREN EDUKI DOKUMENTALA

LPSaren Aldaketa hau honako agiriak osatzen dute:

- Memoria, honako epigrafe hauez osatua: sarrera, aurrekariak, lege esparrua, helburua, antolaketa irizpideak, eduki dokumentala, LPSaren Aldaketaren esparrua eta justifikazioa.
- Araudi osoaren idazkera berria, eduki nagusi berri hauek txertatuta:
  - Berriazko Araudiaren E kapituluaren idazkera berria, osagai hidraulikoaren arabera.
  - Ekarpen berriak, Definizio Terminologikoen A.4 epigrafean.
  - Garrantzi txikiagoko hainbat arau doikuntza.
- Honako agiriak sartu dira LPSaren eranskin gisa:
  - 1 zk. eranskina. Hemen, zehaztasun handiagoz adierazi da lehen araudiaren B.3 epigrafean jasota zegoen Ibaibideak arro hidraulikoka banatzea ibaitartetan.
  - 2 zk. eranskina, "Azterketa hidraulikoak diseinatzeko baldintza teknikoak" agiria, Uraren Euskal Agentziak egina.

183/2003 Dekretuan finkatutako xedapenak betez, Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluaketaren dokumentu osagarria erantsiko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko ibaiak eta errekek –isurialde kantauriarra eta mediterraneoan– Antolatzeke LPSaren Aldaketa honi.

## 7. ALDAKETAREN ESPARRUA

LPSaren Aldaketa hau, beronen helburu diren eta indarrean dauden bi

lurralde plan sektorialek –isurialde kantauriarrekoa eta isurialde mediterraneokoa– hartzen dituzten esparru guztietan aplikatuko da.

## **8. ALDAKETAREN JUSTIFIKAZIOA**

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolaketa, Nekazaritza eta Arrantza Sailak antzeman zuen, interes orokorrari begira, aurreko lurralde plan sektorialeiei erantsi egin behar zitzaizkiela gaur egun indarrean dagoen legerian jasotako irizpide berriak, uholdeen aurkako babesari eta lurzoruaren erabilerari buruz, urak hartzeko arrisku mailaren arabera; hau da, 9/2008 Errege Dekretuak, Uren Jabari Publikoaren Erregelamendua aldatzen duenak, eta 903/2010 Errege Dekretuak, uholde arriskuak ebaluatu eta kudeatzekoak, xedatutakoaren arabera emandako irizpide berriak alegia, betiere tramitazio bidean dagoen Kantauri Ekialdeko Ur Konfederazioaren arau garapenarekin bat. Era berean antzeman zuen, LPSeko eduki guztiak homologatu egin behar zirela Europar Batasunak emandako 2000/60 EE Uraren Esparru Arteztarauan eta Eusko Jaurlaritzak emandako Urari buruzko 1/2006 Legean ezarritako xedapenekin; izan ere, araudi horiek, aurreko lurralde plan sektorialak indarrean jarri eta gero onartuak baitira. Beraz, horrek guztiak justifikatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko ibaiak eta errekek –isurialde kantauriarra eta mediterraneoan– Antolatzekeo LPsaren Aldaketa hau.

Aldaketa hau ez da funtsezkoa, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolaketako sailburuak 2007ko uztailaren 6an emandako aginduek –bat isurialde kantauriarrari buruz eta bestea isurialde mediterraneoari buruz– berresten duten moduan. Agindu haietan adierazitakoaren arabera, EAEko ibaiak eta errekek antolatzekeo LPs aldatzekeo proposamenen izaera ez zen funtsezkoa; eta gainera, haien edukien garapenak, oraingo aldaketa honen –EAEko ibaiak eta errekek (isurialde kantauriarra eta mediterraneoan) antolatzekeo LPsaren Aldaketa– oso antzeke ez-funtsezkotasuna zuen. Beraz, 2003ko irailaren 9ko 206/2003 Dekretuaren arabera tramitatu behar da.

Era berean, ingurumen eraginaren baterako ebaluaketa egitekeo prozedura arautzen duen 183/2003 Dekretuak, uztailaren 22koak, xedatutakoa betez, LPsaren Aldaketak bete du nahitaezkoa den ingurumen eraginaren baterako ebaluaketa.

Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketako Zuzendaritzak, 2007ko ekainaren 27an, erreferentziako dokumentua egitekeo tramitea abiaraz zedin eskatu zuen. Horrela, 2007ko urriaren 24an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko Sailburuordetzak bidezkeo ebazpena eman zuen, LPsaren Aldaketa osatzen duten agiriei buruzkeo ingurumen eraginaren baterako

ebaluaketa egiteko erreferentziako dokumentua formulatuz. Gero, 2008ko urriaren 8an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko Sailburuordetzak honako informea eman zuen "EAEko ibaiak eta errekek -isurialde mediterraneo eta kantauriarra brikoa- antolatzeke LPSaren Aldaketaren Ingurumen Eraginari buruzko Informe Bakarra". Txosten horren ondorio nagusiak izan ziren planteatutako Aldaketa bat datorrela Euskal Autonomia Erkidegoko 2007-2010 Ingurumen Esparru Programan jasotako ingurumeneko irizpide estrategikoekin, eta Aldaketak betetzen dituela, halaber, plan eta programen ingurumen ebaluaketako helburuak. Hau da, Aldaketa honek, ingurumenaren babes maila handia lortzen lagunduko du, eraterakoan ingurumen alderdiak aintzat hartu ditu, eta garapen iraunkorra sustatzen du.

Prozesuari jarraipena emanez, IEBA egokitzeko agiri osagarria txertatu egin da LPSaren 1. Aldaketaren agiri berrian.